# Inauteriak →

## ↓ Egitaraua, herriz herri

### AJANGIZ

▪ **Gaur, otsailak 28.** 19:00etan, Artzube dantza taldearen saioa, Mendietako plazan: *Lantzeko inauteriak*. Ostean, txokolate jana.
▪ **Martxoak 1.** 19:30ean, Ajangizko Herriko Tabernan, Oihan Vegaren *Zergatik praktikatzen dugu sexua erdaraz?* bakarrizketa.

### ARRATZU

▪ **Martxoak 1, Loiolan.**
- 17:30ean, Arratzuko buruhandiei ongi etorria.
- 18:30ean, tostada eta txokolate jana.
- 19:30ean, Xaiborren disko festa.
- 21:30ean, mozorro afaria, Loiolako tabernan.

### BERMEO

▪ **Gaur, otsailak 28.** 18:30ean, umeentzako *Zeren zain?* aratuste dantzaldia, Kafe Antzokian.
▪ **Martxoak 1.**
- 12:30etik aurrera, Lantzeko inauteriak kaleetan zehar, Alkartasunaren eta Bermeotarrak fanfarraren eskutik.
- 19:00etatik aurrera, Sorgin mozorro jaia, portuko tabernetan; musika eta zozketak.
▪ **Martxoak 2.**
- 12:00etan, Haitz Nagusije auzo elkarteak antolatutako tostada txapelketaren hasiera, Sabino Arana enparantzan.
- 13:00etan, tostada txapelketaren sari banaketa.
- 18:00etatik aurrera, nagusien mozorro dantzaldia, Kafe Antzokian. Mozorrotuta doazenentzako tostadak eta kafea egongo dira.
▪ **Martxoak 4.**
- 11:00etatik aurrera, herriko hiru ikastetxeetako ikasleak mozorrotuta aterako dira kalejiran.
- Goizean zehar, Tabernen eta Denden XIII. Mozorro Txapelketa.
- 13:00etan, *Menorcako Zaldiak* izeneko kalejira Tutatis taldeagaz, Erreten Lameratik abiatuta.
- 17:00etatik 20:00etara, FM dantzaldia, Lameran.
- 19:00etan, kontzertua, portuan.
▪ **Martxoak 8.**
- Arratsaldean, Nuntxaku Kultur Elkarteak karroa aterako du kalera, giroa sortzeko.
- Egun osoan zehar, mozorro argazki lehiaketa zaratatsu digitala. Parte hartzaileek telefono mugikorrarekin argazki bat atera beharko dute, mozorro txapelketan parte hartu duen taberna zein denda bat atzean dutela. 20:00ak baino lehanago bidali beharko dituzte argazkiak, *jaibatzordie@gmail.com* helbidera.
- 21:00etan, argazki lehiaketa zaratatsu digitalaren finala, Akelarre tabernan.
- 21:30etik aurrera, 80's Party jaialdia, Kafe Antzokian. Unholy Covers taldearen kontzertua, eta ondoren DJ Data.

### BUSTURIA

▪ **Martxoak 1.**
- 17:00etan, mozorro jaia Aingerubiden, Guraso Elkarteak antolatuta.
- 18:30ean, Atxurkulu Emakume Taldeak playback-a egingo du, Altamirako kultur etxean.
▪ **Martxoak 2.**
- 12:00etan: inauterietako dantzak Busturiko Irrintzi Alai dantza taldearen eskutik, San Kristobalen hasi eta auzoz auzo.

### EA

▪ **Gaur, otsailak 28.**
- Inauteriak ospatuko dituzte eskolan, eta, horretarako, ume bakoitzak bere mozorroa egin du, eskolan bertan. Aurten aukeratutako gaia 'Haizeder Eskola' izan da.
- Ohiturarekin jarraituz, Natxituko Jai Batzordeak txitxiburduntzi egingo du, 17:00etan, bolatokian.

### FORUA

▪ **Martxoak 1.**
- 11:00etan, umeentzako tailerrak eta jolasak.
- 12:00etan, hamaiketakoa trikitilariekin.
- 13:00etan, triki poteoa.
- 14:00etan, umeentzako bazkaria.
- 15:00etan, herri bazkaria.
- 15:00etan, gaztetxoenentzat disko festa, begiraleekin.
- 17:00etan, puzgarriak.
- 18:00etan, fanfarria.
- 21:00etan, mozorro desfilea. Saria mozorro onenari.
- 22:00etan, txokolate jana.
▪ **Martxoak 3.**
- 17:00etatik aurrera, puzgarriak, udal aretoan. Mozorrotuta joateko deia egin du Foruko Udalak.
- 17:30era arte aurkeztu ahalko dira tostadak X. Tostada Txapelketara. Gehienez, bakoitzak zortzi tostada egin ahalko ditu, ogizkoak edo ahiezkoak.
- 18:30ean, tostada txapelketako sari banaketa.

### GAUTEGIZ ARTEAGA

▪ **Martxoak 1.**
- 17:30ean, mozorro lehiaketa eta desfilea.
- 19:30ean, merienda parte hartzaile guztientzako.

### GERNIKA-LUMO

▪ **Gaur, otsailak 28.**
- 20:00etan, koplak kalez kale, Foru plazatik hasita.
- 21:00etatik 22:00etara, San Kristobal plazako tabernetan, *Happy Hour* mozorrotuentzat.
- 21:30etik 22:30era eta 02:30etik 03:30era, Juan Calzada eta Industria kaleetako tabernetan, *Happy Hour* mozorrotuentzat.
▪ **Martxoak 1, Lurgorrin.**
- 11:00etan, inauteriei ongi etorria.
- 11:30ean, mozorro kalejira alaia.
- 12:30ean, jolas kooperatiboak.
- 13:00etan, hamaiketakoa. Jaraian, inauteriei agurra eta talde argazkia.
▪ **Martxoak 1.**
- 17:30etik 20:30era, mozorro jaialdia eta txokolate jana, Merkatu plazan.
- 19:00etan, Lantzeko inauteriak, Pasealekuan hasita.
- 20:00etatik 22:00etara, tostada jana, Merkatu plazan.
▪ **Martxoak 2.**
- 11:00etan, diana gaiteruekin.
- 11:45ean, Irrintzi erakustaldia (kultur etxeko balkoitik).
- 12:00etan, Bizkaiko gaiteruen kalejira.
- 12:30ean, marroen aurreskua, Foru plazan.
- 12:00etatik 14:30era, lehorreko masta paloa, oilar jokoa eta tostada banaketa, Foru plazan.
- 13:00etatik aurrera, Kantagunekoak kalez kale.
▪ **Martxoak 3 eta 4.** 17:30etik 20:30era bitartean, gazteentzako inauterietako parkea, Merkatu plazan.

### IBARRANGELU

▪ **Martxoak 8.**
-12:00etan, Ibaietatik dantzan aterako dira herritarrak.
- 14:00etan, umeen bazkaria, Batzokian.
- 15:00etan, nagusien bazkaria, Batzokian.
- 15:00etatik 17:00etara, umeen zaintza.
Oharra: Bazkarirako eta zaintzarako izena eman behar da, martxoaren 4a baino lehen .
- 17:00etan, umeentzako eskulanak. Ondoren, txokolate jana eta diskoteka, kultur etxean.

### MUNDAKA

▪ **Gaur, otsailak 28.** 19:30ean, aratusten inguruko hitzaldia Mundaka BC dendan, *Los bailes de Espada y sus simbolos: cienagas, insectos y moros* liburuaren idazle, antropologo eta folklorista Juan Antonio Urbeltzen eskutik.
▪ **Martxoak 1.** 17:30ean, txistulariekin batera, herriko danbolin jole txikien emanaldia. Ondoren, Gaztezarreko gazteen saioa, plazan.
▪ **Martxoak 2.**
- 10:00etan, Mundakako Txistulari Marrauen kalejira.
- 12:30ean, Jose Mari Egileor musikariaren etxea zenetik aterako dira Atorrak, eta beraien koplak abestuko dituzte herrian zehar.
- 14:00etan, portuan batuko dira Atorrak, kanta zaharrak abesteko.
- 18:00etan, emakumeak Lamiaz mozorrotu, eta herrian zehar ariko dira kantuan eta dantzan.
▪ **Martxoak 4.**
- 11:00etan, umeen kalejira, Isla Kale polikiroldegiraino.
- 12:00etan, Mundakako eskolako umeen erakustaldia, Isla Kalen.
- 17:30ean, Xaiborren disko festa, herriko plazan.
▪ **Asteburuan zehar.** Mundakako Atorrak Elkarteak antolatuta, Mundakako aratusteei buruzko erakusketa, Mundaka BCk Lehendakari enparantzan duen dendan.

### MUXIKA

▪ **Gaur, otsailak 28.** Muxikako Urretxindorra ikastetxeko jaia egingo dute, eta mozorrotuta joateko deia egin dute. Txitxiburduntzia ere egingo dutela jakinarazi dute, eta, gainera, 17:30etik aurrera diskofesta egongo da.

